

2010EKO MARTXOAREN 27AN ERRAMU ZAPATUKO FERIA DELA ETA ETA SEMINARIOKO PATIOAN JARRIKO DEN TXOSNAREN ESPLOTAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZAK

1. Deialdiaren xedea:

2010eko martxoaren 27an Seminarioko patioan Udalak jarriko duen txosnaren esplotazioa adjudikatzea da deialdi honen xedea.

Txosna honen arrazoia da TALOAK feria egunean banatzea.

2. Eskaerak:

Bergarakoak izan eta irabazi asmorik ez duten kultura edo kirol elkarteek, herri-taldeek eta ongintzako elkarteek aurkez ditzakete eskaerak.

Adinez nagusia den eta jarduteko gaitasun osoa duen pertsona batek sinatu beharko du eskaera. Eskaera idatziz aurkeztu beharko da eta bertan azaldu beharko da baldintza-orri hauek jasotzen dituzten betebeharrak guztiak ezagutzen dituztela eta betetzeko prest daudela.

Eskaerak aurkezteko epea **MARTXOAREN 10ean**, 13:30ean bukatuko da.

3. Adjudikazio-hartzaileen betebeharrak.

- a) Txosnan taloa saldu beharko da, osagarriekin lagunduta eta taloak egiten dakitela ziurtatu beharko dute, nortzuk egingo dituzten eta noiz eta nola ikasi duten adierazi beharko dute txosna hartu nahi dutenek. Taloak txosnan bertan egin beharko dira
- b) Jende aurrean lan egin behar dutenek euskaraz hitz egiten jakin beharko dute.
- c) Goizean 11:00etarako zabaldu eta eguerdiko 15:00etarako itxi beharko da.
- d) Txosna bera utzitako baldintza berdinetan bueltatu beharko da eta egunean bertan arratsaldeko 17:00etarako garbi eta libre utzi beharko da.
- e) Udalarekiko harremanetarako adjudikazio-hartzaileen ordezkaria eskaera sinatu duena izango da, ez badute beste bat izendatzen behintzat.

Izendapen hori idatziz egin beharko da eta Udaletxeko Idazkaritzan aurkeztu beharko da, adjudikazioaren berri jasotzen dutenetik kontatzen hasi eta 5 egun naturaleko epean.

- f) Txosnan, beste batzuen artean, TALOA osagarriekin saldu beharko da (txorizoa, hirugiharra, txokolatea...), ardo berezi batekin, sagardo, ur botilla txiki, mosto edo antzeko edariarekin lagunduta saldu beharko dute eta bi produktu horien prezioa gutzira, gehienez ere, **5 eurokoa** izango da.
Edari gabe ere saldu ahal izango da TALOA eta kasu honetan salmenta prezioa, gehienez ere **4 eurokoa** izango da.
- g) Egun horretarako behar den generoa batzeko, adjudikazio-hartzaileek bestelako behin-behineko instalazio edo eranskinik beharko balute, beren kontura muntatu eta kendu

beharko dute, aurrez okupazioa zelakoa izango den Udalean jakinarazi beharko dutelarik. Instalazio hori ere txosna husteko epe berean kendu beharko dute.

h) 375 €-ko fidantza jarri beharko dute.

4. Adjudikazioa

Zozketa bidez egingo da esplotazioaren adjudikazioa, MARTXOAREN 11an 12:00etan, Udaletxe honetan.

Eskaera aurkeztu dutenen artean egingo da zozketa, aurkeztu diren guztiak aterako dira eta atera ahala zerrenda egingo da.

Esplotazioa konpartitzea posible izango da baldintza hauekin:

1. Zozketaren arabera adjudikazio-hartzaile suertatu direnen oniritzia beharko da.
2. Zozketaren ondorioz egindako zerrenda errespetatu beharko da; hau da, konpartitzeko preferentzia izango dute 2., 3. eta abarrek.
3. Konpartitzea erabakitzen badute, horren berri eman beharko dute Udaletxean.

5.-Udalaren betebeharrak

Jarriko den txosnaren alokairuaren kostua Udalaren kontura izango bada ere, ura eta argindarraren premia izanez gero, eramateko egin beharreko lanen kostua eta kontsumoen kostua adjudikazio-hartzaileen kontura izango da.

6. Esplotazio-eskubidea:

Adjudikazio-hartzaileak ezin izango du esplotazio eskubidea beste edozein talde, elkarte eta abarri zeditu.

Interesik ez balu, 2010eko martxoaren 17rako Bergarako Udalari idatziz jakinarazi beharko lioke eta zozketan erreserbarako atera denari adjudikatuko zaio.